

1. Erronka proposatzen duten erakundeak

ADEGI: Couth Industrial Marking Systems, Salva Industrial, Korta, Metrología Sariki, Comercial Hostelera Del Norte Equipamientos, Euskabea Electrónica del Urumea

2. Erronka

Nola atera, bil eta monitoriza daitezke modu homogeneo eta zentralizatuan industria-ekipamendu mota ezberdinetatik ateratako datuak?

3. Balizko konponbide aplikagarriak

- Sentsorikak eta IoT plataformak
- Datuak Big Datako plataformetan gordetzea eta egituratzea
- Makina/osagaietako egiturazko analisi/interpretazio fisikoa egiteko teknologiak

4. Testuingurua

Erronka hori proposatzen duten enpresak jarduera-sektore desberdinetakoak diren arren, nagusiki, **beren makina edo produktuen konektagarritasunari eta monitoretzari lotutako arazo komunak dituzte**, bai eta horietatik **bildutako datuak modu egituratuan biltegitratzeko beharrari** lotutakoak ere.

Edonola ere, aipatu beharra dago **Salva Industrial** (labeak) eta **Couth Industrial Making Systems** (industria-trazabilitateko sistemak) ekipoak sortzen dituzten enpresak direla; **Euskabea** konponbide elektrikoena; **Korta** osagaien fabrikatzailea da (zehaztasun handiko bolen torlojuak); eta **Metrología Sariki** (metereologia-ekipoak) eta **Comercial Hostelera del Nortek** (ostalaritzako instalazio integralak) ingeniartzako proiektuak diseinatu eta sortzen ditu, eta makina eta instalazioen funtzionamenduari buruzko ezagutza handia duten ekipoak banatzen ditu.

Testuinguru horretan, makina/aktiboak behar bezala atera, bildu eta monitorizatzeko, bai eta lortutako datuetatik etorkizuneko adimena sortzeko ere, honako arazo hauek dituzte enpresek:

- Sentsorikak edo datuak biltzeko sistemarik ez duten makinak.
- Datu heterogeneoak sortzen dituzten jatorri desberdinetako ekipoak; batzuetan ez dute datuak erregistratzeko edo biltegitratzeko sistemarik.
- Zailtasun teknikoak eta datu horiek lortzeko eta modu homogeneoan egituratzeko esperientzia gutxi.
- Makinen erabileratik datuak lortzeko zailtasuna bezeroaren erabileraren konfidentzialtasuna arriskuan jarri gabe.

5. Azpierronkak eta helburuak

Ondorioz, Adegiko enpresen lehenengo erronka hori hainbat motatako ekipamendua behar bezala monitorizatzeko beharrezkoa den hardware- zein software-teknologiaren garapenari lotuta dago. Garapen hori funtsezkoa da makina mota desberdinetatik datozen produkzio-prozesuetako datuak lortzeko eta estandar homogeneoa ezartzeko, etorkizunean horien bestelako egituraketak helmugaren arabera erraztuko dituen.

Erronka horren konponbidearen bidezko lerro horri jarraituz, enpresei datuak sentsozatu, bildu, homogeneizatu eta egituratzeko konponbideak ematea aurreikusten da (informazio baliagarria lortzea, akatsik gabea eta beharrezko informazioa duena), horrela, denbora eta baliabide asko kontsumitzen dituen prozesu garesti batetik prozesu sinple eta automatizatura igaroz.

Zentzu horretan, uste dugu honako teknologia hauek egokiak izango liratekeela:

- Datuak lortzeko (IoT) eta bildutako informazioa automatizatzeko makina desberdinak sentsozatzzea.
- Datuak biltegitatzeko Big Data plataforma.
- IoT ikusteko plataformak.